



**..../2020 Foru Araua, .....aren (e)koa  
Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2019ko  
Kontu Orokorra onartzen duena.**

### **Azalpena**

Behin 2019ko aurrekontu ekitaldia amaitu ondoren, Batzar Nagusietan aurkeztu behar da Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Kontu Orokorra, foru arau honetan euskarri juridikoa hartzen duena.

Foru arau honen bidez onartutako kontu orokorrak osagai hauek ditu, hala jasotzen baitu 127. artikuluan Gipuzkoako Finantza eta Aurrekontu Araubideari buruzko martxoaren 27ko 4/2007 Foru Arauak: foru sektore publikoa osatzen duten entitateen urteko kontuak; aipatu sektorearen urteko kontu finkatuak; eta, azkenik, aurreko informazioa osatu, zabaldu eta komentatzen duen memoria.

Era berean, informazioa ematen du foru sektore publikoaren ekonomia, finantza eta ondare egoeraz, ekitaldiko ekonomia eta ondare emaitzez eta, azkenik, aurrekontuen exekuzio eta likidazioaz.

2019ko Kontu Orokorra, Gipuzkoako Batzar Nagusiek eztabaidatu eta onartu behar dutena, martxoaren 27ko 4/2007 Foru Arauak 128. artikuluan ezarritako epemuga ondoren aurkeztu da; izan ere, COVID-19ak ekarri duen ezohiko egoeraren eragina handia izaten ari da 2020ko urteko jardueran. Horrela, 2020ko martxoaren 11n, OMEk pandemia globala deklaratu ostean, martxoaren 14an Espainiako gobernuak 463/2020 Errege Dekretua onartu zuen, COVID-19ak eragindako osasun krisia kudeatzeko estatu espainiar osoan alarma egoera deklaratzeko duena. Deklarazio hori urte honetako ekainaren 21era arte luzatu da. Osasun krisi hori abiadura handian ari da heltzen ekonomiara eta gizartera, eta, aurreikuspenen arabera, susperraldia hurrengo urteetara atzeratuko da. Hori dela eta, 2020ko krisia tamaina handikoa da, eta ongizateari, produkzio jarduerari eta kudeaketari eragiten ari zaie. Ezohiko egoera honek sortzen dituen zailtasunak kontuan hartuta, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Kontu Orokorraren aurkezpena urrira atzeratu da, baita hura Herri Kontuen Euskal Epaitegira bidaltzea ere.

**Norma Foral ..../2020, de ..... de ..., por la que  
se aprueba la Cuenta General del Territorio  
Histórico de Gipuzkoa de 2019.**

### **Exposición de motivos**

Una vez finalizado el ejercicio presupuestario de 2019, procede la presentación en las Juntas Generales de la Cuenta General del Territorio Histórico de Gipuzkoa cuyo respaldo jurídico es la presente norma foral.

De conformidad con el artículo 127 de la Norma Foral 4/2007, de 27 de marzo, de Régimen Financiero y Presupuestario del Territorio Histórico de Gipuzkoa, el contenido de la Cuenta General que se aprueba con la presente norma foral está formado por las cuentas anuales de las entidades integrantes del sector público foral; las cuentas anuales consolidadas del mismo y la memoria que completa, amplía y comenta la información anterior.

Suministra, así mismo, información sobre la situación económico-financiera y patrimonial del sector público foral, sobre los resultados económico-patrimoniales del ejercicio y, finalmente, sobre la ejecución y liquidación de los presupuestos.

Esta Cuenta General de 2019, cuyo debate y aprobación corresponde a las Juntas Generales de Gipuzkoa, se presenta tras la fecha límite establecida en el artículo 128 de la Norma Foral 4/2007, de 27 de marzo, dada la situación excepcional del COVID-19 que está afectando a la actividad del ejercicio 2020. Así tras ser declarada pandemia global el 11 de marzo del 2020 por la OMS, el gobierno español aprobaba el 14 de marzo el Real Decreto 463/2020 por el que se declara el estado de alarma en todo el territorio del estado español para la gestión de la situación de crisis sanitaria, cuya duración se extendía hasta el 21 de junio. Esta crisis sanitaria se ha transmitido a la economía y a la sociedad a una gran velocidad y las previsiones de recuperación se están viendo retrasadas por lo que su incidencia en 2020 es muy relevante, afectando al bienestar, a la actividad productiva y a la gestión. En atención a las dificultades que genera esta situación excepcional, la presentación de la Cuenta General del Territorio Histórico de Gipuzkoa ha sido atrasada a octubre así como su remisión al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas.



## 1. artikulua.

Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2019ko Kontu Orokorra onarturik geratzen da martxoaren 27ko 4/2007 Foru Arauak xedatutakoari jarraiki. Bere magnitude nagusiak foru arau honen I. eranskinean zehaztuta datoz, eta honela jaso da bere edukia:

- Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2019ko urteko kontuak. Gainera, testuinguru ekonomikoari buruzko azterketa sartuta dago.
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren urteko kontuak. Foru Aldundiko departamentuen aurrekontu programen betetze mailari buruzko azalpen memoriak biltzen ditu.
- Uliazpi Fundazioa eta Kabia foru erakunde autonomoen kontuak, IZFE, ETORLUR eta BIDEGI sozietate publikoenak eta KIROLGI, SUESKOLA GIPUZKOA, ADINBERRI, ZIUR, GIPUZKOAKO ALDAKETA KLIMATIKOA eta MUBIL foru fundazioenak. Foru sektore publikoaren urteko kontu finkatuak.
- Udalerriak xehekapena.
- 2019ko Aurrekontuaren likidazioari buruzko xehetasun dokumentuak.

## 2. artikulua.

Partzuergo hauen urteko kontuak jasotzen dira: Gipuzkoako Ur Kontsortzioa, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioa eta Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak.

### Amaierako xedapena

Foru arau hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean, nahiz eta horrek ez duen eragozten 2019ko abenduaren 31ra arteko atzerako ondorioak izatea hemen onartzen diren kontuei dagokienez.

## Artículo 1.

Se aprueba la Cuenta General del Territorio Histórico de Gipuzkoa correspondiente al año 2019, de acuerdo con lo dispuesto en la Norma Foral 4/2007, de 27 de marzo, cuyas magnitudes principales se detallan en el Anexo I de esta norma foral, estando su contenido recogido en:

- Cuentas anuales de la Diputación Foral de Gipuzkoa de 2019. Se incluye, además, el análisis del contexto económico.
- Cuentas anuales de la Diputación Foral, que incorpora las memorias explicativas del grado de cumplimiento de los programas presupuestarios de los departamentos de la Diputación Foral de Gipuzkoa.
- Cuentas de los organismos autónomos forales "Fundación Uliazpi" y "Kabia", de las sociedades públicas "IZFE", "ETORLUR", y "BIDEGI" y de las fundaciones forales "KIROLGI", "SUESKOLA GIPUZKOA", "ADINBERRI", "ZIUR", "CAMBIO CLIMÁTICO DE GIPUZKOA" y "MUBIL". Cuentas anuales consolidadas del sector público foral.
- Municipalización.
- Documentos detalle de la liquidación del Presupuesto 2019.

## Artículo 2.

Se acompañan las cuentas anuales de los Consorcios "Consortio de Aguas de Gipuzkoa", "Consortio de Residuos de Gipuzkoa" y "Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa".

### Disposición final

La presente norma foral entrará en vigor el día de su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, sin perjuicio de que sus efectos se retrotraigan a la fecha de 31 de diciembre de 2019, respecto de las cuentas objeto de aprobación.